

XVI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Begira, Jauna, zeure zerbitzariei
eta emazkiezu ugari zeure graziaren dohainak,
fedeak, esperantzak eta maitasunak indarturik,
zure aginduetan erne iraun dezaten.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 18, 1-10a

*Jauna, ez joan zure morroiaren aurretik,
gelditu gabe.*

Genesis liburutik

Egun haietan, Jauna Abrahami agertu zitzaion Mambreko artadian. Berorik handieneko ordua zen, eta Abraham atarian zegoen eserita. Begiak jasotzerakoan, hiru gizon ikusi zituen bere aurrean zutik.

Ikusi orduko, txabola atetik haien bidera joan zen, eta lurtean ahuspeztuta, honela esan zuen: «Jauna, zure gogoko gertatu banaiz, ez joan zure morroiaren aurretik, gelditu gabe. Ura ekarraraziko dut, eta oinak garbituta zuhaizpe horretan eseriko zarete. Ogi zati bat ere ekarriko dizuet, eta indarberrituko zarete; eta gero jarraituko diozue bideari, zuen morroiaren ondotik igaro zaretenez gero». Haiiek erantzun zioten: «Egizu diozuna».

Joan zen Abraham lasterka oihal txabolara Sararengana, eta esan zion: «Hartu berehala hiru gaitzeru irin, eta oretu eta egin opilak. Joan zen gero zekorretara, eta zekor gizen on bat hartu eta morroi bati eman zion, laster presta zezan. Gero, gazta, erreberoa eta zekorkia harturik, dena aurrean jarri zien hiruei; eta bera haien ondoan gelditu zen zuhaizpean; eta haiiek jan zuten.

Orduan galdetu zioten: «Non da Sara, zure emaztea?» Abrahamek erantzun: «Hor, oihal txabolan». Eta haietako batek esan zion: «Hurrengoan etortzen natzaizunean, Sarak izango du ordurako seme bat».

ERANTZUN SALMOA: Sal 14, 2-3. 4-5

R/. Jauna, nor dagoke zure txabolan?

Akatsik gabe eta zintzo dabilena,
bere artean egia dioena.
Mihiz inor bezten ez duena,
hurkoari gaitzik egiten ez diona,
aizukoa lotsagarri uzten ez duena. R/.

Gaiztoari esker txarra ematen diona,
Jainko-beldur dena ospatzen duena;
bere kaltetan zin eginik ere aldatzen ez dena,
dirua irabazitan ematen ez duena,
errugabearen aurka eskupekorik hartzen ez duena. R/.

II. IRAKURGAIA: Kol 1, 24-28

*Gizaldietan ezkutuan egondako misterioa,
eta orain santuei agertua.*

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Senideok: Poza dut orain, zuen onerako eramaten ditudan nahigabeengatik; honela betetzen ditut neure haragian Kristoren nekeak, Haren gorputza den Elizaren alde. Jaungoikoak Elizaren zerbitzari egin nau, eta bere berri ona zuei osorik adierazteko eginkizuna eman dit.

Misterio hori gizaldi eta belaunaldietan ezkutuan egona da; eta orain Jainkoak bere santuei agertu die. Jainkoak ezagutarazi nahi izan baitie bere santuei, misterio honek jentilentzat daukan aintza eta aberastasuna: Kristo dela zuentzat aintzaren itxaropena; Kristo hau hotsegiten gabiltza jakinduria guztiz, gizon-emakume guztiei burubide eta erakutsiak emanez, guztiak beren kristau bizitza betera irits daitezten.

EBANJELIOA: Lk 10, 38-42

Aleluia: Ik. Lk 8, 15

R/. Aleluia.

V/. Zorionekoak, bihotz on eta jorian
Jaungoikoaren hitza gordetzen dutenak,
eta ekinaren ekinez alea ematen dutenak. R/.

*Martak bere etxean hartu zuen.
Mariak alderdirik onena aukeratu du.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, sartu zen Jesus herriska batean, eta Marta zeritzan emakume batek bere etxean hartu zuen. Bazuen honek, Maria izeneko ahizpa bat; eta hau, Jaunaren oinetan eseririk, Haren hitza entzuten zegoen.

Martak, berriz, nahiko lan bazuen etxeko zereginetan; eta, aurrean jarrita, honela esan zion Jesusi: «Jauna, ez al zaizu batere axola, nire ahizpak ni lanean bakarrik uztea? Esaiozu niri laguntzeko».

Eta Jaunak erantzun: «Marta, Marta, estu eta larri zabilta zu gauza askorekin; eta bakarra izan beharrezkoa. Mariak alderdirik onena aukeratu du, eta ez zaio kenduko».

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna, Itun Zaharreko opari guztiak
beren betera ekarri dituzu gurutzeko opari bakarrean;
onar ezazu eta santu egin
zeure zerbitzarion eskaintza,
Abelena bedeinkatu zenuen bezala;
eta bakoitzak Zu goresteke eskaintzen duena
guztien salbamenerako izan dadila.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin;
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo.